

## Adizkinator hitzaurrea

Adizkinator aplikazioa euskara batuaren aditzak jokatzeko tresna da. Xede horri jarraiki, hasiera batean batik bat euskara ikasleentzat sortu genuen, beharrezkoa iruditzen baitzitzaigun aditzak era erraz eta azkarrean jokatzeko bidea eskura izatea, taula ezagunen osagarri gisa erabil zezaten. Hala ere, erabiltzaile potentzial nagusia euskara ikaslea izan arren, argi dago euskal aditzaren gainean zalantzarik edo jakin-minik izan dezakeen edonork erabil dezakeela. Adizkinatorren helburua da bilatu nahi den aditzaren forma modurik ahalik eta azkarrenean lortzea; bere gabezia guztiekin, horretarako bidea eman nahi dio erabiltzaileari. Egia hori, bi tresnek heldu zioten aurretik ataza horri; beherago aipatuko ditugu. Edonola ere, argitu nahi dugu ez dagoela zertan hemengo aditz guztiak ezagutu euskaraz ondo, zuzen eta jator komunikatzeko, gure hizkuntzak hainbat bide ematen baititu kontzeptu bera adierazteko.

Lan honek bi aurrekari ditu. Lehena Garikoitz Knörrek garatu zuen; aditzak.com webgunean erabil daiteke, eta Androideko bertsio zaharretarako aplikazioa zuen. Bigarrena, Adizkitegi Automatikoa, EHUko Euskara Institutuak garatu zuen. Azken hori *Sareko Euskal Gramatikaren* barruan kokatuta dago eta web nabigatzailean erabil daiteke. Horrekin batera, Androiderako aplikazioa ere badu, "Adizkitegia" izenarekin. Bi tresna horiek oso erabilgarriak dira eta gureak ez die, inola ere, meriturik edo lekurik kendu nahi, hein batean osagarriak baitira. Are gehiago, ez genduke zintzo jokatzeko esango ez bagenu bi-biak eredutzat erabili ditugula. Dena den, badaude gure beharrak asetzeko ezinbesteko eduki edo funtzioak.

Testuingurua kontuan hartuta, bi hutsune nagusi bete nahi genituen. Lehena zen erabiltzaileari toki bakarrean Euskaltzaindiak gaur arte euskara baturako araututako aditzak ematea. Eta, bigarrena, aditz alokutiboak zein diren jasotzea. Horiei dagokienez, baina, esan behar da hikako moldea baino ez dudala bildu, Euskaltzaindiak horiek soilik arautu baititu. Beraz, lan honetatik kanpo geratu da bereziki ekialdean erabiltzen den zukako alokutiboa. Helburu bi horien gainetik erabilerraztasuna zegoen: tresnak bidea eman behar zuen klik gutxitan adizkira heltzeko eta forma batetik bestera pasatzeko, bai batean, bai bestean, egunerokotasuneko kontzeptuak baliatuz.

Edukia aipatzen hasita, adierazi beharra dago nondik atera ditugun aplikaziorako formak. Horretarako hainbat iturri erabili ditugu, baina bi dira aipagarrienak. Lehenengoa Euskaltzaindiaren 1979ko *Euskal Aditz Batua* da. Bertan Txillardegik bildu zituen *Euskera* aldizkariaren 1973,<sup>1</sup> eta 1977,<sup>2</sup> aleetan euskara baturako proposatutako adizkiak. Eskuliburu horretan hikako formak biltzen ziren arren, ez zuen forma alokutiborik ematen. Forma horiek Euskaltzaindiaren 14. arautik atera ditugu. Dena den, Akademiak bi lan horietan emandako adizki batzuk ez ditugu sartu eta beste batzuk erantsi dizkiogu.

Kanpoan hiru multzo nagusi utzi ditugu. Lehenengoa osatzen dute aditz laguntzailean gutxien erabiltzen diren paradigmek. *Izan* aditzean, adibidez, ez ditugu sartu +ahala modua eta orainaldiko adizkiak (*naizateke*, *zarateke* etab.). Txillardegik trinko batzuetarako emandako subjuntibozko formak ere kendu ditugu, gehienek oso erabilera murrizta baitute. Azkenik, agintera saileko *sasitrinko* deiturikoak ere ez ditugu sartu, haien erabilera zuzentzat ematen bada ere, ez direlako benetako trinkoak.

Gainera, goian esan bezala, hainbat adizki sartu ditugu. Izan ere, beharrezkoa ikusten genuen aditz batzuen formak ematea, hiztunari uneren batean erabilgarri suertatuko zaizkiolakoan. *Banekar* adizkia, esaterako, ez zuen Euskaltzaindiak jaso, baina

edozein euskaldunek ulertuko duelakoan gaude. Dena den, aukeraketa hori egiteko ez ditugu geure irizpide propioak hartu, EHUko Euskara Institutuak emandako zerrendetatik abiatu baikara. Hala ere, ikus dezagun Euskaltzaindiak berak 14. arau horretan esandakoa: *Esan gabe doa, norbaitek [Euskaltzaindiak ez onartutako] adizkera haiek erabili nahi izanez gero, beti egin ditzakeela, eta dagozkien molde alokutiboak ere, halaber, beherexeago itxuratzen den jokabide batuaren arabera era ditzakeela* (Euskaltzaindia, 1994). Era berean, ez araututako adizkientzat forma alokutiborik eman ez denez, guk geuk sortu ditugu, betiere emandako irizpideei jarraituz.

Adizki trinkoen alokutiboetan, Euskaltzaindiak bi aukera ematen ditu “orainaldian lehen edo bigarren pertsonarik aurrizki geratzen ez den adizkerentzat”: [...] *z- hobetsirik ere, ez du aukeratzen agertzen ziren bi moldeen artean, biak berdin ontzat ematen baititu (zagok edo zegok)* (Euskaltzaindia, 1994). Hartara, hemen bi formak bildu dira; erabiltzaileak jakingo du zein hautatu, nor bere testuinguru linguistikoa kontuan izanik.

Tresna euskaldunentzat eta euskalduntze prozesuan daudenentzat lagungarria izatea espero dugu, asmo soil horrekin egin baitugu. Hala ere, baten batek zalantzarik izango balu, adi: “aditzen adieretan ez adituarentzat, aditzaile adiskidearen adibiderik adierazgarrienak”.

#### Bibliografia:

- Bostak Bat lantaldea (2006), *Euskal Aditza. Trinkoa eta laguntzailea*. Bilbo.
- [Euskaltzaindia \(1973\), \*Aditz laguntzaile batua\*. Euskera \(XVIII\), 5. orr. Erandio.](#)
- [Euskaltzaindia \(1977\), \*Aditz sintetikoa\*. Euskera \(XXII\), 785. orr. Bilbo.](#)
- [Euskaltzaindia \(1979\), \*Euskal Aditz Batua\*. Donostia.](#)
- [Euskaltzaindia \(1994\), \*14. araua. Adizki alokutiboak \(hikako moldea\)\*. Bilbo.](#)
- [Euskara Institutua, EHU, "Adizkitegi automatikoa", \*Sareko Euskal Gramatika \(SEG\)\*, \[www.ehu.eus/seg\]\(http://www.ehu.eus/seg\)](#)
- [Knörr, G. \(2011\), \*aditzak.com\*.](#)

Ander Herranz Uribarrik, Berangon, 2021ean.